

# Zarataren esposiziopean dauden langileen osasuna berariaz zaintzeko protokoloa





# Zarataren esposiziopean dauden langileen osasuna berariaz zaintzeko protokoloa



Barakaldo, 2022

Lan honen bibliografia-erregistroa Osalaneko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:  
[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024)

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de Osalan:

[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024)

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of Osalan  
[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024)

**Obraren jatorrizko izenburua:**

Protocolo para la vigilancia sanitaria específica de las personas trabajadoras expuestas a ruido.

**Editorea eta banatzailea:**

© MINISTERIO DE SANIDAD

CENTRO DE PUBLICACIONES

Paseo del Prado, 18- 28014 Madrid

<https://cpage.mpr.gob.es>

NIPO linean: 133-22-141-5

Argitaraldia: 2.a., 2022.

Egileak: Guisasola Yeregui, Aitor; Lijó Bilbao, Arantza; Fiz Melsió Luis Miguel; Uña Gorospe, Mikel; León Robles Caridad Pilar; Astudillo Zulueta, Paula.

Lineako dokumentua (60 p.: PDF)

Hizkuntza: Español

Editorearen URLa: <https://www.sanidad.gob.es/ciudadanos/saludAmbLaboral/docs/ruidoProtocolo.pdf>

**Izenburua:** Protocolo para la vigilancia sanitaria específica de las personas trabajadoras expuestas a ruido / Zarataren esposiziopean dauden langileen osasuna berariaz zaintzeko protokoloa.

**Argitalpena:** 1.a. 2022ko abendua.

**Ale-Kopurua:** 30 ale.

© Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi  
OSALAN- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea/  
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

**Argitaratzailea:** OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.  
Camino de la Dinamita s/n - 48903 Barakaldo (Bizkaia).

**Internet:** [www.osalan.euskadi.eus](http://www.osalan.euskadi.eus)

**Egileak:** Guisasola Yeregui, Aitor; Lijó Bilbao, Arantza; Fiz Melsió Luis Miguel; Uña Gorospe, Mikel; León Robles Caridad Pilar; Astudillo Zulueta, Paula.

**Fotokonposizioa eta inprimaketa:** Imprenta Garcinuño S.L.  
Ctra. San Vicente, 13 - 48510-Valle de Trápaga-Trapagaran (Bizkaia).

**Lege Gordailua:** LG BI 01619-2022

## Hitzaurrea



**“Zarataren eraginpean dauden langileen osasun-zaintza espezifikorako protokoloa”** prestatu dugu 2001ean osasun-zaintza espezifikorako onartu zen protokoloa eguneratzeko. OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoak, protokolo bat argitaratu zuen 2012an, lehen protokolo hura argitaratu ondoren hainbat arau aldatu zirenez, eta Protokolo horretan formalizatu zituen testuan ebidentzia zientifikoa txertatzeko oinarriak.

Prebentzio-zerbitzuko osasun-langileei erabakiak errazago hartzen laguntzeko tresnak dira langileen osasuna zaintzeko protokolo espezifiko hauek, baina, horrez gain, osasun-langileei beren zerbitzuetan garatzen duten praktika klinikoaren kalitatea hobetzen ere laguntzen diete. Horretarako, ezinbestekoa dugu tresna horiek eskura dugun ebidentzia onenean oinarrituta taxutzea, eta, informazio zientifikoaren hazkundea esponenziala denez, tresnok prestatzean gogoan edukitzea gai izan behar dutela ebidentzia hazkor hori jaso eta sistematikoki eta aldiro-aldiro eguneratzeko.

Hala, Espainiako Osasun Sistemaren Lurraldearteko Kontseiluko Osasun Publikoko Batzordearen Laneko Osasunari buruzko Txostenean lortutako akordioei jarraikiz, lehenik eta behin “Zarataren eraginpean dauden langileen osasuna zaintzeko gida” prestatu dugu. Hipoakusia sortzeko agente kimikoek eta fisikoek zaratarekin duten interakzioari buruzko ebidentzia jorratzen du gida horrek, baita zaratak haurdunaldian eta fetuan izan ditzakeen ondorio kardiobaskularrak ere.

39/1997 Errege Dekretuak (prebentzio-zerbitzuen araudia onesten duenak) ezarrita daukanari men eginez sortu da Protokolo hau. Errege Dekretu horren 37.3.c artikulua arabera, osasunari ondo kontu egitekotan, langileak jasan behar dituen arrisku-faktoreak aintzat hartuta prestatutako protokolo espezifikoak edo bestelako bitartekoak aplikatu behar dira. Bestalde, OSALANEK Osasun Ministerioarekin eta autonomia-erkidegoekin izandako lankidetzaren eta parte-hartzearen emaitza da Protokoloa, Osasun Sistema Nasionaleko Lurraldearteko Kontseiluko Osasun Publikoko Batzordearen Laneko



Osasunaren Ponentziaren lanen esparruan sortu dena, batzorde horretako kide baita Osalan, Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari.

Aurrenekoz argitaratu zenetik hona, profesionalek osasun-zaintza espezifikorako protokoloen edukiaren inguruan zer premia dituzten adierazi eta zehaztu dute, hala nola irizpide uniformeak eskatu dituzte langileen osasun-zaintzatik eratorritako ondorioak jakinarazteko eta osasun-azterketak zenbatean behin egin behar diren zehatz jakiteko. Protokoloan prebentzio-zerbitzuetako osasun-profesionalen proposamenak ere jaso ditu, eta espero dugu beharrezko ezagutza eta jarraibide egokiak emango dituela zarataren eraginpean dauden langileek osasunean izan ditzaketan ondorio txarrak prebenitzeko.

Lourdes Iscar Reina

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia





**Consejo Interterritorial**  
SISTEMA NACIONAL DE SALUD

Espainiako Osasun Sistemaren Lurralde arteko Kontseiluaren Osasun Publikoko Batzordeak “Zarataren esposiziopean dauden langileen osasuna berariaz zaintzeko protokoloa” onartu zuen, 2019ko maiatzaren 9ko osoko bilkuran.



COMISIÓN NACIONAL  
DE SEGURIDAD Y SALUD  
EN EL TRABAJO

2019ko urriaren 8an egindako osoko bilkuran, Zarataren esposiziopean dauden langileen osasuna berariaz zaintzeko protokoloaren eta haren gidaren gaineko informazioa eman zitzaion Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalari.



## EGILEAK

**Aitor Guisasa Yeregui.** Laneko medikuntzan espezializatutako medikua. Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea. EAE.

**Arantza Lijó Bilbao.** Laneko medikuntzan espezializatutako medikua. Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea. EAE.

**Luis Miguel Fiz Melsió.** Otorrinolaringologian espezializatutako medikua. Bilbo. EAE.

**Mikel Uña Gorospe.** Laneko medikuntzan espezializatutako medikua. Prevencilan. Donostia/San Sebastián. EAE.

**Caridad Pilar León Robles.** Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Unitateko Laneko Medikuntzako mediku egoiliarra. OSAKIDETZA - Euskal Osasun Zerbitzua. EAE.

**Paula Astudillo Zulueta.** Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Unitateko Laneko Medikuntzako mediku egoiliarra. OSAKIDETZA - Euskal Osasun Zerbitzua. EAE.

## KANPOKO BERRIKUSPENA.

**Nora Ibarгойen Roteta.** OSTEBA - Osasun Teknologien Zerbitzuko teknikaria. Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritz. EAE.

**Itziar Etxeandia Ikobaltzeta.** OSTEBA - Osasun Teknologien Zerbitzuko teknikaria. Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritz. EAE.

## KOLABORAZIOAK

**Itziar Crespo Basterra.** Liburuzaina. Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

**Unai Solana Matarrán.** Liburuzaina. Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

**M<sup>a</sup> Teófila Vicente Herrero, M<sup>a</sup> Victoria Ramírez Íñiguez de la Torre, Santiago Martínez Oyarzábal, Javier Mata Peñuela.** Laneko medikuntzan espezializatutako medikuak. Laneko Medikuntzako Espezialisten Espainiako Elkarte (AEEMT).

## OSASUN PUBLIKOKO BATZORDEA

### LANEKO OSASUNARI BURUZKO TXOSTENA

**Montserrat García Gómez.** Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa

**Joquín Estévez Lucas.** Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa

**Aitor Guisasa Yeregui.** Osalan. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea. EAE

**Lourdes Iscar Reina.** Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea. EAE

**Juan Carlos Coto Fernández.** Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea. EAE

**Rafael Panadés Valls.** Osasun Saila. Katalunia

**María Isabel González García.** Osasun eta Gizarte Ongizateko Saila. Galizia

**Francisco Arroyo Llanes.** Osasun eta Familia Saila. Andaluzia

**Rosario Díaz Peral.** Osasun eta Familia Sails. Andalusia

**Valentín Rodríguez Suárez.** Osasun Sails. Asturiasko Printzerria

**Íñigo Fernández Fernández.** Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako Sails. Kantabria

**Lourdes Miralles Martínez-Portillo.** Osasun eta Gizarte Gaietako Sails. Errioxa

**Bienvenida Carpe Carpe.** Osasun eta Gizarte Politika Sails. Murziako eskualdea

**Valentín Esteban Buedo.** Osasun Unibertsal eta Osasun Publikoko Sails. Valentziako Erkidegoa

**Nieves Martínez Arguisuelas.** Osasun, Gizarte Ongizate eta Familia Sails. Aragoi

**Fernando Cebrián Gómez.** Osasun eta Gizarte Gaietako Sails. Gaztela Mantxa

**Emma Rosa Corraliza Infanzón.** Osasun eta Gizarte Gaietako Sails. Gaztela Mantxa

**Iñaki Moreno Sueskun.** Lan Osasunerako Nafarroako Institutua. Nafarroako Foru Komunitatea

**Jesús Fernández Baraibar.** Lan Osasunerako Nafarroako Institutua. Nafarroako Foru Komunitatea.

**Yolanda Anés del Amo.** Osasun eta Gizarte Politiketako Sails. Extremadura

**Santiago Briz Blázquez.** Osasun eta Gizarte Politiketako Sails. Extremadura

**Milagros Quiemadelos Carmona.** Osasun Sails. Balear Uharteak

**Eduardo García-Ramos Alonso.** Osasun Sails. Kanariak

**María Fernanda González Gómez.** Osasun Sails. Madrilgo Erkidegoa

**Mercedes Elvira Espinosa.** Osasun Sails. Gaztela eta Leon

**Luisa Fernanda Hermoso Castro.** Presidentzia eta Osasun Publikoko Sails. Melillako Hiri Autonomoa

**Ana Isabel Rivas Pérez.** Osasun, Gizarte Zerbitzu, Adingabe eta Berdintasuneko Sails. Ceutako Hiri Autonomoa

**Pilar Aparicio Azcárraga**

Osasun Publiko, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusia.

**Covadonga Caballo Diéguez**

Ingurumen eta Lan Osasuneko zuzendariorde nagusia.

# Aurkibidea

|  |    |
|--|----|
| <b>Justifikazioa</b>   | 15 |
| <b>I. Aplikazio-irizpideak</b>   | 17 |
| <b>II. Arazoaren definizioa</b>  | 17 |
| 2.1. Zarata eta entzumena  | 17 |
| 2.1.1. Definizioak eta kontzeptuak   | 17 |
| 2.1.2. Esposizio-iturriak  | 18 |
| 2.1.3. Oroimen fisiologikoa  | 19 |
| 2.1.4. Ekintza etiopatogenikoko mekanismoa   | 20 |
| 2.1.5. Zarataren eraginak entzumenean: Klinika   | 21 |
| 2.1.6. Zaratak eragindako hipoakusiaren ezaugarri nagusiak   | 22 |
| 2.1.7. Diagnostiko diferentziala   | 23 |
| 2.2. Zarataren eta agente kimiko, farmakologiko eta fisikoen esposiziopean egoteak entzumenean dituen ondorioak  | 24 |
| 2.2.1. Zarataren eta agente kimikoen esposiziopean egotea  | 24 |
| 2.2.2. Zarataren eta tabakoaren esposiziopean egotea   | 25 |
| 2.2.3. Zarataren eta agente farmakologikoen esposiziopean egotea   | 25 |
| 2.2.4. Zarataren eta agente fisikoen esposiziopean egotea  | 26 |
| 2.2.5. Osasunaren zaintza kolektiboa, langilea aldi berean zarataren, agente kimikoen, agente farmakologikoen, tabakoaren kontsumoaren edo agente fisikoen esposiziopean dagoenean | 27 |
| 2.3. Zaratarekiko esposizioa eta ondorio kardiobaskularrak   | 27 |
| 2.4. Zaratarekiko esposizioa eta haurdunaldiaren eta umekiaren gaineko ondorioak   | 28 |
| <b>III. Arriskuaren ebaluazioa</b>   | 28 |



|  |    |
|--|----|
| <b>IV. Zaintza espezifikorako protokoloa</b>   | 29 |
| 4.1. Osasunaren zaintza indibiduala  | 29 |
| 4.1.1. Edukia  | 29 |
| 4.1.2. Maiztasuna  | 30 |
| 4.2. Osasunaren zaintza kolektiboa   | 31 |
| <b>V. Jarduteko irizpideak</b>   | 33 |
| 5.1. Audiometria indibiduala aztertzeko irizpideak   | 33 |
| 5.2. Langileen osasunaren zaintzatik ateratzen diren ondorioak<br>komunikatzeko irizpideak   | 34 |
| 5.3. Nola jokatu, langilea aldi berean zarataren eta agente<br>kimikoen esposiziopean badago eta horrek entzumena<br>galaraz badiezaioke | 36 |
| 5.4. Nola jokatu, haurdun dagoen emakume bat zarataren<br>esposiziopean badago   | 36 |
| 5.5. Nola jokatu, laneko medikuak uste badu zaratak eragindako<br>hipoakusia-kasu batean aurrean dagoela                                 | 37 |
| 5.6. Dokumentazioa   | 38 |
| <b>Bibliografía</b>  | 39 |
| <b>I. Eranskina:</b>   |    |
| Galdetegia   | 53 |
| <b>II. Eranskina:</b>  |    |
| Azterketa audiometrikoari buruzko alderdi praktikoak   | 57 |

## Aurkezpena

Osasun-administrazioek Espainiako Osasun Sistemaren Lurralde arteko Kontseiluko Osasun Publikoaren Batzordearen Laneko Osasunari buruzko txostenaren bidez egin duten lanaren emaitza da protokolo hau; hala, 2001ean onartutako protokoloa berrikusi eta eguneratu du.

Gaur egun eguneratzen ari garen protokoloak, indarrean egon den bitartean, jarduera-gida bat eskaini die zarataren esposiziopean dauden langileen osasun-zaintza espezifikotan parte hartzen duten profesionali. Denbora horretan zehar, profesionalak osasun-zaintza espezifikorako protokoloen edukiari dagokionez dituzten beharrak adierazi eta zehaztu dituzte, hala nola irizpide uniformeak eskatu dituzte langileen osasun-zaintzaren ziozko ondorioak jakinarazteko edo osasun-azterketak egiteko aldizkakotasuna zehazteko orduan.

Aldi horretan gertatu diren arau-aldaketak jasotzen dira berrikuspen honetan. Hala, protokoloa argitaratu ondoren, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko otsailaren 6ko 2003/10/EE Zuzentaraua onartu zen, Langileak agente fisikoetatik (zarata) eratorritako arriskuen pean daudenerako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa, bai eta martxoaren 10eko 286/2006 Errege Dekretua ere, zaratarekiko esposizioarekin lotutako arriskuen aurka langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzkoa berau eta zeinaren bidez Espainiako zuzenbidera ekartzen baita aipatutako zuzentaraua, aurreko protokoloaren oinarri izan ziren xedapenak indargabetuta.

Halaber, ondoren, azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretua onartu zen, Gizarte Segurantzaren sisteman gaixotasun Profesionalen koadroa onartzen duena eta horiek jakinarazteko zein erregistratzeko irizpideak ezartzeko. Protokoloan, hain zuzen ere, horren gaineko aipamena egiten zen. Errege-dekretu horrek ezarri zuenez, gaixotasun profesionalaren susmoa jakinarazi beharra zegoen halakorik egonez gero.

Langileen osasuna zaintzeko protokolo horiek osasun-zaintzako arduradun profesionalak erabakiak erraztea helburu duten tresnak dira, eta profesional horiek prebentzio-zerbitzuetan garatzen duten praktika klinikoaren kalitatea handitzen laguntzen dute. Tresna horiek eskuragarri dagoen ebidentziarik onenean oinarritu behar dira. Beraz, Espainiako Osasun Sistemaren Lurralde arteko Kontseiluko Osasun Publikoko Batzordearen Laneko Osasunari buruzko Txostenean lortutako akordioei jarraikiz, *Zarataren esposiziopean dauden langileen osasuna zaintzeko gida* bat egin da protokoloarekin batera, zeina oinarri gisa erabili baita bertan jasotako gomendioak egiteko orduan.



Espero dugu osasun-zaintza espezifikorako Protokoloaren berrikuspen hau tresna egokia izatea beharrezko ezagutza eta jarraibideak emateko, zarataren esposiziopean dauden langileengan zaratak dituen ondorioak prebenitze aldera.

## Justifikazioa

Langileen osasuna zaintzeko protokoloak osasun-zaintzaz arduratzen diren profesionalak erabakiak erraztea helburu duten tresnak dira, eta profesional horiek prebentzio-zerbitzuetan garatzen duten praktika klinikoaren kalitatea handitzen laguntzen dute. Tresna horiek eskura dagoen ebidentzia onenean oinarritu behar dira. Hala, eta informazio zientifikoaren hazkundera esponentziala denez, tresnak egitean kontuan hartu behar da gero eta sendoagoa den ebidentzia jaso behar dutela, eta aldiari behin sistematikoki eguneratzeko gaitasuna izan behar dutela.

Bai 2001. urtean onartutako osasun-zaintza espezifikorako protokoloan<sup>1</sup>, bai Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak (INSHT) 2006an argitaratutako *“Zaratarekiko esposizioarekin lotutako arriskuak ebaluatzen eta prebenitzeko gida teknikoan”*<sup>2</sup>, –zaratarekiko esposizioarekin lotutako arriskuen kontra langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzko martxoaren 10eko 286/2006 Errege Dekretua onartu ostean egina–, bi-bietan azaldu zen zer-nolako eragina izan zezakeen agente honek bai haurdun dauden langileengan, berriki erditu direnengan edo edoskitzaroan daudenengan bai umekiarengan; orobat, zarataren eta agente fisiko, kimiko edo farmakologikoen esposizio konbinatuarekin lotutako efektu ototoxikoak ere azaldu zituzten; baita zaratarekiko esposizioarekin lotuta entzumenaren esparrutik kanpo izan ditzakeen gainerako efektuak ere; horrez gain, prebentzio-zerbitzuek erabil ditzaketen zenbait proba azaldu zituzten, hala nola otoemisia akustikoak eta potentzial ebokatuak.

Proba horiek eta zaratak langileen osasunean dituen efektuei buruzko ebidentzia, edonola ere, balioztatu beharrekoak ziren, osasun-zaintzako protokoloan sartzeko.

Hala, Espainiako Osasun Sistemaren Lurralde arteko Kontseiluko Osasun Publikoko Batzordearen Laneko Osasunari buruzko Txostenean lortutako akordioei jarraikiz, lehenik eta behin *Zarataren esposiziopean dauden langileen osasuna zaintzeko gida* egin zen.

Gida egiteko prozesuan, egokitu egin da *“Espainiako Osasun Sistemaren Praktika Klinikoko Gidak egiteko Eskuliburu Metodologikoan”*<sup>3</sup> deskribatutako metodologia (2016ko berrikuspenari jarraikiz; metodologia horrek, era berean, GRADE taldeak planteatutakoa ezartzen du –*Grading of Recommendations Assessment, Development and Evaluation*–), eta *“Handbook for conducting a literature-based health assessment using OHAT approach for systematic review and evidence integration”*<sup>4</sup> delakoan deskribatutako metodologia (2015eko



berrikuspenari jarraikiz). Hala, gorago adierazi bezala, protokoloan jasotzen diren gomendioak eskura dagoen ebidentziarik onenean oinarritu nahi izan dira.

*Zarataren esposiziopean dauden langileen osasuna zaintzeko gidan jasotako gomendioak protokoloan sartu dira, eta testuan izartxo\* baten bidez adierazten dira.*

Beharrezko jotzen duenak gida kontsultatzeko aukera dauka, honako alderdi hauek ulertzeko: nola eguneratu eta justifikatu diren aztertutako galderei buruzko gomendioak, zein den horien oinarri den ebidentzia zientifikoaren maila, eta zein emandako gomendioaren indarra edo maila.

Protokoloak, halaber, prozesu honetan aztertu ez diren beste gai batzuk ere jasotzen ditu, bai ebidentziaren ikuspegitik finkatuta daudelako, bai indarreko araudian jasotako gaietako dagozkielako, eta horiek eguneratzeko ez delako zertan erabili ebidentzia zientifikoan oinarritutako metodorik. Kasu horietan, egileen arteko adostasunera jo da.

Nolanahi ere, 2001. urtean onartu zen osasun-zaintzako protokoloa<sup>1</sup> eguneratzeko beharra zorrotz betetzeko ahalegina egin da, kontuan hartuta, halaber, protokoloa indarrean egon den bitartean araudian izan diren aldaketak.



# I. Aplikazio-irizpideak

Protokolo hau aplikatuko zaie beren lanaldian zarataren esposiziopean dauden pertsona guztiei.

## II. Arazoaren definizioa

### 2.1. Zarata eta entzumena

#### 2.1.1. Definizioak eta kontzeptuak

Zarata eta soinua hitzak berdin erabili izan dira, eta haien arteko aldea ez da fisikoa, baizik eta kulturala eta subjektiboa; hala, zarata esaten zaio gustatzen ez zaigun soinuari<sup>5</sup>.

Nolanahi ere, langileen osasun-zaintza espezifikorako protokolo honi dagokionez, zarata gisa definituko da, martxoaren 10eko 286/2006 Errege Dekretuak (zaratarekiko esposizioarekin lotutako arriskuen aurka langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzkoa berau) 5. artikuluan zehazten duen arriskua ebaluatzeko ezartzen diren parametro fisikoen arabera, beheragoko balioak – eguneroko esposizioaren mailari eta esposizio altuko mailari buruzkoak– gainditzen dituztenak, eta, beraz, ekintza bat gauzatzea dakartenak:

$L_{Aeq,d} = 80$  dB(A) eta  $L_{pikoa} = 135$  dB (C), hurrenez hurren.

Soinuak, zaratak, hainbat parametro bereizgarri ditu<sup>6,7</sup>:

– Maiztasuna edo tonua:

Segundo batean gertatzen diren bibrazioen kopurua da, eta honela neurtzen da: segundoko zikloak (cps) edo segundoko bibrazioak, hertzak (Hz). Soinu entzungarriek 16 eta 20.000 hertz (Hz) arteko maiztasuna dute, eta arriskutsuagoak dira soinu altuak edo 1.000 Hz-tik gorako maiztasunak dituztenak.

Segundoko ziklo kopuru handi batek tonu altua sortuko du, eta kopuru txikiak, aldiz, tonu baxua. Hala ere, eguneroko bizitzako soinuak hainbat maiztasunen konbinazioa izan ohi dira.

– Intentsitatea:

Soinu-uhinaren energia-maila da.



Definizio fisiko zehatza honako hau da: presioaren produktuaren batez besteko balioa denboran (gainazal-unitateari aplikatutako indarra) bibrazio-abiadura lineala aplikatuta (partikulen desplazamendu-abiadura, soinu-presioaren ondorioz). Segundoko ergiotan neurtzen da hedapenaren norabidera doan zentimetro karratu normal baten bidez. Halaber,  $W/m\text{-tan}^2$  edo pascaletan (Pa) ere neurtzen da.

Presio akustikoa  $W/m\text{-tan}^2$  zenbatuko bagenu, 1etik 10era<sup>14</sup> bitarteko eskala bat erabili beharko genuke, eta eskala hori pascaletan egingo bagenu, 200.000.000 unitateko beste bat beharko genuke.

Horregatik, eta eraginkortasun txikia duenez, dezibela (dB) erabili ohi da. Azken hori ez da neurketa-unitate absolutu bat; bi intentsitate-mailen arteko aldea adierazten duen unitate adimentsional bat baizik. Dezibela (dB) kantitate jakin baten eta erreferentziatzat hartzen den beste baten arteko harremanaren logaritmo hamartarra baino 10 aldiz handiagoa da [ $L = 10 \log_{10} (I:I_0)$ ]. Erreferentzia hori, normalean, 1.000 Hz-ko entzumena-tariari dagokio, 20  $\mu\text{Pa}$ -ko presioarekin (edo 10-12  $W/m\text{-ko}^2$  presioarekin); hau da, belarri gazte eta osasuntsu batek entzun dezakeen presio akustiko txikiena, eta horrela, eskala logaritmikoan, bere balioa 0 dB-koa da.

– Tinbrea:

Soinuaren ezaugarri bat da, zeina soinu konplexu batean funtsezko maiztasunarekin batera garatutako harmonikoekin erlazionatzen baita eta soinu egiteko modu propio eta bereizgarria eratzen baitu.

Ondorio praktikoetarako, zaratari dagokionez, bi berezitasun hauek ere hartuko dira kontuan:

– Iraupena:

Zarataren kontrako efektua esposizioaren iraupenarekiko proportzionala da.

Denborari dagokionez, zaratak honela ere deskribatu ohi dira: konstanteak, aldizkakoak edo inpaktuzkoak.

– Purutasuna:

Soinu purua maiztasun batek edo gutxik osatzen dutena da. Garrantzitsua da, soinu puruak arriskutsuagoak direlako entzumenerako.

### 2.1.2. Esposizio-iturriak

Zaratarekiko esposizioa eragiten duten jardueren zerrenda adierazgarria ezartzea helburu hartuta, erreferentziatzat hartuko dugu azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren sisteman gaixotasun profesionalen koadroa onartu, eta horiek jakinarazteko eta erregistratzeko irizpideak ezartzen dituen. Zerrendan honako hauek sartzen dira:

- *Galdaragintza-lanak.*
- *Metalak estanpatu, enbutitu, errematxatu eta mailukatzeko lanak.*
- *Anezka batienteko ehungailuetako lanak.*
- *Abiazio-motorrak, errektoreak edo pistoi-motorrak kontrolatu eta puntuan jartzeko lanak.*
- *Meatze, tunel eta lurpeko galerietan mailu eta zulagailu pneumatikoekin egin beharreko lanak.*
- *Itsasontzietako makina-geletako lanak.*
- *Aire-zirkulazioa (lehorreko langileak, nabigazioko eta erreazio-hegazkinetako mekanikari eta langileak eta abar).*
- *Zuhaitzak zerra eramangarriekin bota eta moztea.*
- *Aisialdi-aretoak (diskotekak eta abar).*
- *Makina zaratatsuekin (hala nola bulldozer, hondeamakina, pala mekaniko eta abarrekin) egin beharreko obra publikoetako lanak (bideak, eraikuntzak eta abar).*
- *Diesel motorrak, errepide, tren edo itsasoko garraioko ibilgailuetan eta dragetan bereziki.*
- *Etxeko zaborraren bilketa.*
- *Soinua anplifikatzeko ekipoen instalazioa eta probak.*
- *Dardaragailuen erabilera eraikuntzan.*
- *Errotatibako lanak industria grafikoan.*
- *Kautxu eta plastikoaren ehotzea eta material horiek injektatzea, moldekatzeke.*
- *Makina jakin batzuen erabilera: zura eraldatzeko makineria, zerra zirkularra, zinta-zerrak, arrabotatzeko makinak, tupiak eta fresak.*
- *Harri eta mineralen ehotzea.*
- *Munizio eta lehergaien espoliazioa eta suntsipena.*

### 2.1.3. Oroimen fisiologikoa<sup>8</sup>

Entzumen-pabiloiak soinu-uhinak jasotzen ditu, eta kanpoko entzumen-hoditik iristen dira tinpanoaren mintzeraino. Bertan, dardara eragiten dute.

Tinpanoaren mintzaren mugimendu hori erdiko belarriko hezurtxo-katearen bidez (mailua, ingudea eta estribua) leiho obalera komunikatzen da. Leiho horretatik, eta estribuaren mugimenduen ondorioz, barne-belarriko likidoan uhin bat sortzen da, eta uhin honek bere hedadurarik handiena lortzen duen tokian, zelula ziliatuen estimulazio bat sortzen da, maiztasun jakin batzuei dagokien bulkada elektriko bat eragiten duena.



Soinuaren maiztasun desberdinekiko sentsibilizazioa koklearen puntu batean baino gehiagotan kokatzen da. Behe-maiztasunak koklearen goialdean detektatzen dira, helikotrematik gertu. Goi-maiztasunak, aldiz, behealdean hartzen dira, hau da, leiho obalaren ondoan.

#### 2.1.4. Ekintza etiopatogenikoko mekanismoa<sup>5,7,9,10</sup>

Zaratak eragindako entzumen-lesioak barne-belarriko mintz basilarraren mailan gertatzen dira. Kanpoko zelula ziliatuen eta Deiters-en sostengu-zelulen lesio degeneratibo bat dago.

Lesioak hainbat faktoreren arabera gertatzen dira:

– **Zarataren intentsitatea**

Soinu-uhinaren energia-maila.

– **Esposizio-denbora**

Zarataren kontrako efektua esposizioaren iraupenarekiko proportzionala da, eta barne-belarrira iristen den soinu-energiaren kopuru osoarekin lotuta dagoela dirudi.

– **Zarataren maiztasuna**

Kanpoko zelula ziliatuek, leiho obaletik hurbilen dagoen kokleako gunean daudenek, goi-maiztasunak hautematen dituzte, besteak beste 3.000 Hz eta 6.000 Hz-koak. Horiek, normalean, zarataren eragin kaltegarriak jasan ohi dituzte. Maiztasun-tarte horretan sortzen dira industria-zarata gehienak.

– **Zarataren izaera**

Zaratarekiko esposizioa etena edo jarraitua izan daiteke. Esposizio horren aurrean, bi sistematan oinarritzen da entzumenaren defentsa-mekanismoa. Alde batetik, mailuaren muskulua dugu, eta, bestetik, estribuaren muskulua, azken hori garrantzitsuagoa. Bi sistemek 10 dB inguru moteltzen dute sartzen den soinua, eta asetasunez ahitzen dira; ondorioz, soinua etena edo jarraitua izan, kaltegarria izango da esposizioaren iraupenaren arabera.

– **Norbanakoaren sentikortasuna**

Arrisku-faktore gisa onartzen da, baina zaila da hori frogatzea. Subjektu batzuek sentsibilitate handiagoa dute zaratarekiko, eta zarata-maila bera jasoz gero, gainerako biztanleek baino kalte handiagoa eta azkarragoa izango dute entzumen-zorroztasunean.

Hauetako sentikortasun-faktoreak:

- **Adina**

Badirudi bizitzaren erdi inguruko adinean lesio-aukera gehiago daudela. Kontuan izan behar da, kasu askotan, efektu hori adinaren berezko presbiakusiari gehitu ahal zaiola. Hala, endekapenezko prozesu horrek lesio akustikoa agertzea erraztu dezake.

- **Erdiko belarriaren patologia**

Konduktziozko hipoakusia badago, presio akustiko handiagoa behar da barne-belarria estimulatzeko, baina energia nahikoa denean, zuzenean sartzen da barruraino, erdiko belarriak ez duelako betetzen bere funtzio moteltzailea eta espero baino kalte handiagoa eragiten duelako.

Era berean, adierazi behar da biztanleriaren % 1 inguruk sortzetik falta duela estribuaren muskulua, eta, beraz, ez duela babes-faktore hori.

- **Barne-belarriaren gaixotasunak**

Ahultasun koklear handiagoa espero daiteke entzumen-galera neurosensoriala dagoenean.

- **Gaixotasun neurologikoak**

Meningitisaren eta buruko traumatismoen aurrekariak gorrieraren agerpenarekin lotu izan dira.

- **Familia-aurrekariak**

Familia-suszeptibilitatea ere badago, bai eta gaixotasun hereditarioak ere. Zaratarekiko banakako sentikortasuna zehazteko, egile batzuek entzumen-nekearen frogak egiteko iradokitzen dute, hala entzumen-ataria neurtzeko.

### 2.1.5. Zarataren eraginak entzumenean: Klinika<sup>10</sup>

Zaratak zenbait eragin ditu entzumenean. Hona hemen zerrenda, garrantzi txikienetik handienera antolatuta:

- **Entzumenaren estaldura**

Leku zaratatsu batean egotean, beste soinu batzuk edo beste pertsona batzuk entzuteko zailtasuna dago.

- **Entzumen-nekea**

Zaratarekiko esposiziopean izateagatik entzumenean sortutako jaitsiera iragankorra. Soinu-atsedenaren bidez berreskuratzen da entzumena: 16 ordura arteko atsedendia, jaitsiera eragin duen esposizioaren intentsitatearen eta iraupenaren arabera; izan ere, denborarekiko proportzio logaritmikoa jarraitzen du errekupeazioak.

Ez dago lesiorik entzumenaren organoan.



### – Hipoakusia iraunkorra

Entzumen-defizit iraunkor neurosensoriala sortzen da, zeina 3.000 eta 6.000 Hz bitarteko maiztasunetan ezartzen hasten baita.

Lesioa dago entzumenaren organoan.

Hasiera batean, langileak ez du hipoakusia hori gaixotasun gisa bizi, oraindik ez duelako bere bizitza soziala oztopatzen. Elkarrizketen maiztasunak oraindik ez daude ukituta.

Baina esposizioak aurrera jarraitzen badu, galera hori hasieran maiztasun garaiagoetara hedatuko da eta, gero, beheragokoetara. Sintoma subjektiboak agertzen hasten dira; langileak entzumen normalik ez duela nabaritzen du; aparatuen bolumena igotzen du, eta esan ohi du ez dituela elkarrizketak hautematen hondoan zarata dagoenean.


Azkenik, elkarrizketetako maiztasunak kaltetuta geratzen dira, eta desgaitasun bat eragiten du horrek.

### 2.1.6. Zaratak eragindako hipoakusiaren ezaugarri nagusiak<sup>6,7,11</sup>

- Gorreria neurosensorial konpoezina da, barne-belarriko zelula ziliatuei eragiten diena.
- Entzumenaren galera aldebikoa eta simetrikoa izan ohi da. Hala ere, baldintza horiek betetzen ez dituzten audiometriak bateragarriak dira diagnostikoarekin, baldin eta bereziki orientatutako soinu-iturriak daudela frogatzen bada.
- Entzumen-galera mailakatua da, eta goiz hasten da. Modu bereizgarrian garatzen da esposizioaren lehen urteetan, eta okerrera egin dezake esposizio jarraituaren hurrengo 8-10 urteetan. Une horretatik aurrera, kalteak ez du azkar egiten aurrera, eta maila gorenera iristen da 10-15 urtez esposizio jarraituan egon ondoren. Zaratarekiko esposizioa eteten bada, ez du aurrera egiten.
- Kaltea 3000, 4000 eta 6000 Hz-ko maiztasunei eragiten dien galerarekin hasi ohi da, 8000 Hz-ko errekupeazioarekin.
- Bidean, galerak maiztasun horiei eragiten die bereziki, eta, batez ere, 4000 Hz-koei. Bestalde, 500, 1000 eta 2000 Hz-ko maiztasunei leunago eragiten die, horietara ere hedatzen den arren.
- Audiometrian, aire- eta hezur-bideen jaitsiera hautematen da, eta bien jaitsiera paraleloa izaten da (35 dB-tik beherako aldea).
- Inoiz ez du entzumen-galera sakonik sortzen. Normalean, behe-maiztasunetako mugak 40 dB ingurukoak izaten dira, eta goi-maiztasunetakoak 75 dB ingurukoak.
- Akufenoak edo sindrome bestibularra edukitzea ere gerta daiteke.

– Zarataren zioz entzumenagaltzeak ez du esan nahi etorkizunean zaratarekiko sentsibilitate handiagoa egongo denik.

### 1. irudia. Zarataren ondorioz sortutako nahasdura audiometrikoen bilakaera denboran zehar<sup>9</sup>



#### 2.1.7. Diagnostiko diferentziala<sup>6,9,11</sup>

Zaratak eragindako hipoakusia diagnostikatzeko, baztertu egin behar dira erdiko belarriko eta barne-belarriko gaixotasunak nahiz entzumen-nerbioko lesioak.

Patologia ugarik izan ditzakete tonu puruen audiometrian zaratak sortutakoent antzeko aurkikuntzak (birosia, ototoxikotasuna, hipoakusia neurosentsorial hereditarioa eta idiopatikoa, traumatismo kraneo-entzefalikoa, erradiazio terapeutikoaren esposizioa, alterazio neorologikoak, hala nola esklerosi anizkoitza, hezur-alterazioak, esaterako Paget-en gaixotasuna, alterazio zerebrobaskularrak, akustikoaren neurinoma, nerbio-sistema zentralaren neoplasiak, Meniereren gaixotasuna, entzumenaren bat-bateko galera eta abar). Ondorioz, diagnostiko klinikoa zaila izan daiteke.



Zailtasunak handiagoak izango dira hipoakusia profesionalaren hasierako egoerak iradokitzen dituzten audiogramak agertzen badira. Izan ere, oso litekeena da patologia horiek zaratak entzumenean dituen efektuak gehiegi estimatzearen erantzule izatea. Zaratarekiko esposizioak eragindako entzumenesioaren diagnostikoa egingo da, anamnesian eta miaketan horretarako arrazoi nahikoak daudenean.

Hipoakusia lanetik datorrela ezartzeko, beharrezkoa da zehaztea nolakoa den zaratarekiko esposizioa bai une horretan bai aurretik ere.

## 2.2. Zarataren eta agente kimiko, farmakologiko eta fisikoen esposiziopean egoteak entzumenean dituen ondorioak

### 2.2.1. Zarataren eta agente kimikoen esposiziopean egotea\*

Zarataren eta agente kimikoen esposizio bateratuak gizakiengan eragindako entzumen-efektuei buruzko azterlan epidemiologikoak urriak dira, agente horietako batzuk bakarrik hartzen dituzte, eta horien ebidentziaren kalitatea, oro har, oso txikia da. Ikerketa gehienak animaliekin egindako esperimientuen bidez gauzatu dira. Ikerketa horien ebidentziaren kalitatea handiagoa da.

Bi ikerketa-iturriek ematen duten ebidentzia integratuta, honako emaitza hauek lortzen dira:

#### 2.2.1.1. Zarataren eta disolbatzaile ototoxikoen edo ustez ototoxikoen esposiziopean egotea

Zarataren eta disolbatzaileen baterako ekintzak gizakiaren entzumenerako duen arriskugarritasuna aztertuz gero, horri buruzko ebidentziak agerian uzten du arrisku hori posible dela **estirenoarekin**<sup>12-21</sup> eta **toluenoarekin**<sup>22-32</sup>.

Arriskugarritasun hori ezin izan da sailkatu beste disolbatzaile batzuetan<sup>33-35</sup>.

#### 2.2.1.2. Agente kimiko itogarriak

Zarataren eta itogarrien baterako ekintzak gizakiaren entzumenerako duen arriskugarritasuna aztertuz gero, horri buruzko ebidentziak agerian uzten du arrisku hori posible dela **karbono monoxidoarekin**<sup>36-47</sup>.

Arriskugarritasun hori ezin izan da sailkatu hidrogeno-zianuroan edo beste itogarri batzuetan<sup>48</sup>.



### 2.2.1.3. Beste agente kimiko batzuk

Ezin izan da sailkatu zarataren eta beste agente kimiko batzuen (nitriloak<sup>49-52</sup>, metalak eta metaloideak<sup>53-55</sup>, bromuroak, hidrokarbuo halogenatuak edo intsektizidak) baterako eraginak gizakiaren entzumenerako duen arriskugarritasuna.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau iradokitzen da: batetik, zarataren esposiziopean dauden langileen osasunaren zaintza espezifikoa barne hartu beharko lukeela tolueno, estireno edo karbono monoxidoaren esposizioaren gaineko ezagutza (gomendio ahula); eta, bestetik, eragile horietakoren baten edo batzuen eta zarataren baterako esposizioak sor ditzakeen entzumen-efektuen jarraipen sakonagoa egin beharko litzatekeela (gomendio ahula).

Halaber, honako hau iradokitzen da: zarataren esposiziopean dauden langileen osasun-zaintza espezifikoren arabera langile horien entzumenean eragin dela adierazten denean, eta langile horiek zarataren eta toluenoaren, estirenoaren edo karbono monoxidoaren esposiziopean daudenean, baterako esposizioa saihesteko prebentzio-neurriak gomendatu beharko lirateke (gomendio ahula).

### 2.2.2. Zarataren eta tabakoaren esposiziopean egotea\*

Ezin izan da sailkatu zarataren eta tabako-kontsumoaren ekintza bateratuaren ondorioz gizakiaren entzumenean egon daitekeen arriskugarritasuna<sup>56-65</sup>, baina zarataren eta tabako-kontsumoaren baterako esposizioak entzumenean dituen eraginak gutxi ezagutzen direnez, ezagutza hori areagotzea egokitzat jotzen da, tabakoaren kontsumoak zarataren esposiziopean dauden langileengan duen eraginari buruzko ezagutza barne (jardunbide egokiaren gomendioa). Eta ezagutza hori proposatzen denez, tabako-kontsumoaren prebalentzia eta horrek beste gaixotasun batzuetan dituen ondorio nabarmenak direla eta, egokitzat jotzen da tabakoaren aurkako aholkua ematea eta tabakoaren kontsumoaren abstinentsia gomendatzea langileen osasunaren zaintzaren esparruan (jardunbide egokiaren gomendioa).

### 2.2.3. Zarataren eta agente farmakologikoen esposiziopean egotea\*

Zarataren eta agente farmakologikoen esposizio bateratuak gizakiengan eragindako entzumen-efektuei buruzko azterlan epidemiologikoak oso urriak dira; zarataren eta azido azetil salizilikoaren esposizio bateratuak epe laburrean eragindako efektuetara mugatzen dira<sup>69,70</sup>.



lkerketa gehienak animaliekin egindako esperimientuen bidez garatu dira; horietan, azterlan horien ebidentzia-kalitatea handiagoa da, eta agente farmakologiko gehiago aztertu dira. Alde horretatik, zarataren eta agente farmakologikoen arteko baterako ekintzak gizakiaren entzumenean duen arriskugarritasunari buruzko ebidentziak erakusten du arrisku hori posible dela aminoglukosidoen familiako antibiotikoekin; zehazki, honako hauekin: **gentamizinarekin**<sup>73-77</sup>, **kanamizinarekin**<sup>78-80</sup> eta **neomizinarekin**<sup>81-90</sup>, bai eta zitostatiko batekin ere: **zisplatinoarekin**<sup>92-94</sup>.

Emaitzek erakusten dutenez, bi agenteen administrazio-sekuentziak eragina izan dezake emaitzan, eta, beraz, aurretik izandako zarata-esposizioak agente farmakologiko horien esposizioaren ondoriozko baterako efektua erraztu dezake.

Hori guztia ikusita, iradokitzen da zarataren esposiziopean dauden langileen osasun-zaintza espezifikokan gentamizina, kanamizina, neomizina edo zisplatinoaren esposizioaren gaineko ezagutza sar dadila (gomendio ahula). Zarataren esposiziopean dagoen pertsona bat gentamizina, kanamizina, neomizina edo zisplatinoarekin farmakologikoki tratatu behar den kasuetan, alde aurretik ezarritako prebentzio-neurriak indartzea eta bi agenteen esposizio bateratua saihesteko prebentzio-neurriak proposatzea iradokitzen da (gomendio ahula). Halaber, entzumen-efektuen gainean egingo den jarraipena zarataren esposizio isolatuaren kasuan baino estuagoa izan dadila iradokitzen da (gomendio ahula).

#### **2.2.4. Aldi berean zarataren eta agente fisikoen esposiziopean egotea\***

Ez da frogatu zarataren eta bibrazioen esposizio bateratuaren ondorioz entzumena galtzeko arrisku handiagorik dagoenik<sup>95</sup>, baina entzumena galtzeko arrisku handiagoa dago ingurune zaratatsuan bibrazio-tresna eramangarriak erabiltzen dituzten eta bibrazioengatik hatz zuria pairatzen duten langileentzat, hatz zuririk gabeko langileekin alderatuta<sup>96,97</sup>. Hatz zuriaren sindromearen larritasuna ez zen lotu entzumena galtzeko arrisku handiagoarekin<sup>96</sup>.

Hori guztia ikusita, egokitzen jotzen da zarataren esposiziopean dauden langileen osasun-zaintza espezifikokan esku-beso bibrazioaren esposizioaren gaineko ezagutza sar dadila (jardunbide egokiaren gomendioa). Era berean, egokitzen jotzen da zarataren eta esku-besoko bibrazioaren esposizio bateratua dagoen kasuetan, bibrazioengatik hatz zuria duten pertsonen jarraipen estuagoa egitea (jardunbide egokiaren gomendioa), eta bibrazioengatik hatz zuria pairatzen duen pertsona bat dagoela antzematen denean eta haren entzumenean ondorioak agertzen direnean, bi agenteen esposizio bateratua

saihesteko prebentzio-neurriak gomendatu daitezela komeni da (jardunbide egokiaren gomendioa).

### 2.2.5. Osasunaren zaintza kolektiboa, langilea aldi berean zarataren, agente kimikoen, agente farmakologikoen, tabakoaren kontsumoaren edo agente kimikoen esposiziopean dagoenean\*

Orain arte ikusitakoa kontuan hartuta, egokitzat jotzen da azterlan epidemiologikoak egitea edo horietan laguntzea, langilea aldi berean zarataren, agente kimikoen, agente farmakologikoen, tabakoaren kontsumoaren edo agente kimikoen esposiziopean denean egin beharreko osasun-zaintza kolektiboaren barruan, hartara lan-eremuan entzumen-galera eragiten duen zarataren eta aipatutako agente horiekiko esposizioaren arteko harremana aztertzen jarraitzeko (jardunbide egokiaren gomendioa).

## 2.3. Zaratarekiko esposizioa eta ondorio kardiobaskularrak\*

Zaratarekiko esposizioak eragindako ondorio kardiobaskularrak aztertzeko egindako azterlanen emaitzek adierazten dute esposiziopean dauden langileek hipertentsioa izateko arrisku pixka bat handiagoa dutela esposiziopean ez daudenek baino: HR 1,68 % 95eko konfiantza-tartean 1,10etik 2,29ra<sup>106</sup> edo RR 4000 Hz-n: 1,34 % 95eko konfiantza-tartean 1,01etik 1,77ra<sup>104</sup>, egileen arabera.

Era berean, arrisku handiagoa dago **gaixotasun kardiobaskularra izateko** (HR 1,34 % 95eko konfiantza-tartean 1,15etik 1,56ra)<sup>106</sup> eta **gaixotasun kardiobaskularrak eragindako hilkortasunerako** (HR 1,12 % 95eko konfiantza-tartean 1,02tik 1,24ra)<sup>106</sup>.

Hala ere, emaitza horiek zuhurtziaz interpretatu behar dira, **konfiantza oso baxuko ebidentzia-mailan** oinarrituta sortzen baitira. Azterlanak oso heterogeneoak dira elkarren artean, nahasketa-faktoreen kontrol baxua erakusten dute, eta zehertasunak dituzte.

Eremu horretan, esposizioa eta efektua aldagaien arteko lotura-hipotesiak probatzeko lan egin da nagusiki, baina egindako azterlanek ez dute ebaluatzen zaratarekiko esposizioa murrizten duten esku-hartzeen eraginkortasuna.

Horregatik guztiagatik, egokitzat jotzen da zaratak langileen osasunean dituen ondorioak prebenitzeko programek, besteak beste, hipertentsio arterialaren, gaixotasun kardiobaskularren eta horien ondorioen intzidentzia



eta prebalentziaren gaineko ezagutza sartu dezatela beren helburuen artean (jardunbide egokiaren gomendioa). Era berean, egokitzen da esku hartzeko azterlanak egitea, jakiteko ea zaratarekiko esposizioa murrizteak hipertentsio arteriala hobetzen duen (jardunbide egokiaren gomendioa).

## 2.4. Zaratarekiko esposizioa eta haurdunaldiaren eta umekiaren gaineko ondorioak\*

Ebidentziak erakusten du, ebidentzia-mailan konfiantza oso txikia izanik, lotura egon daitekeela zaratarekiko esposizioaren eta umekiak haurdunaldiko adinerako izan lezakeen pisu txikiaren artean<sup>116</sup>. Aztertutako ikerlanek ez dute ezartzen haurdunaldiaren zein unetan gerta daitekeen ondorio hori. Hori guztia kontuan hartuta, honako hau gomendatzen da: lanean zarataren esposiziopean dagoen haurdun baten fetua haurdunaldiko edozein unetan behar baino pisu txikiagokoa bada, zaratarekiko esposizioa saihestea (jardunbide egokiaren gomendioa).

Ez da ebidentziarik aurkitu zaratak haurdunaldian dituen beste efektu batzuk behar bezala ziurtatzeko<sup>116</sup>.

Zaratarekiko esposizioaren eta jaiotzera doan **haurraren entzumendifuntzioen** agerpenaren arteko loturari buruzko ebidentzia ez da behin betikoa <sup>116,141</sup>, eta eskura dagoen ebidentziaren gaineko konfiantza oso txikia da. Hala ere, babestu beharreko ondasuna haurraren osasuna denez, egokitzen da haurdun dagoen emakumea laneko zarataren esposiziopean ez egotea haurdunaldiaren 20. astetik aurrera<sup>52</sup>, jaiotze behar duen haurraren entzumenean izan ditzakeen ondorioak prebenitzeko (jardunbide egokiaren gomendioa).

## III. Arriskuaren ebaluazioa

Zaratarekiko esposizioarekin lotutako arriskuen aurka langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzko martxoaren 10eko 286/2006 Errege Dekretuak 6. artikuluan agindutakoa betez egingo da arriskuaren ebaluazioa, bat etorrita “Zarataren esposiziopean dauden langileen arriskuak ebaluatzeko eta prebenitzeko Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren **gida teknikoan**” ezarritakoarekin<sup>2</sup>.

## IV. Zaintza espezifikorako protokoloa

Zarataren esposiziopean dauden langileen osasuna zaintzeaz arduratzen diren osasun-profesionalei zuzenduta dago osasun-zaintza espezifikorako protokoloa.

Zarataren eta beste agente fisiko, kimiko edo farmakologiko batzuen arteko interakzioen ondorioz sortutako entzumen-galera garaiz detektatzea du helburu. Halaber, jarduteko jarraibideak ematen ditu, zaratak haurdunaldian izan ditzakeen ondorioak eta eragin kardiobaskularrak prebenitzeko.

2 fase ditu:

- Osasunaren zaintza indibiduala.
- Osasunaren zaintza kolektiboa.

### 4.1. Osasunaren zaintza indibiduala

#### 4.1.1. Edukia

Egiaztatuko da langile bakoitzaren **lan-historia klinikoak** 39/1997 Errege Dekretuak (Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duenak) 37.3.c. artikuluan ezarritako edukia jasotzen duela.

– **Lan-historia**<sup>145,146</sup>:

Honakoak galdetu eta jaso behar dira:

- Egungo eta iraganeko esposizioaren maila eta denbora.
- Hartutako prebentzio-neurriak.
- Neurri teknikoak, antolakuntzakoak, norberaren entzumen-babesa, eta abar.
- Norberaren entzumen-babesa lanean benetan erabiltzen den.

Lantokian dauden zarataren eta agente kimikoen neurketen emaitzak jasoko dira, neurketaren data eta lortutako emaitzak adierazita.

– **Historia klinikoa**<sup>5,6,10,145,146</sup>

- Aurrekari pertsonalak:
  - Entzumenarekin lotutako gaixotasunen aurrekariak edo entzumen-galerekin zerikusia izan dezaketen beste batzuk.
  - Kirol, istripu, trauma, aisialdi eta abarren esposizioen aurrekariak.



- Familia-aurrekariak:
  - Gorreri-arazoak edo bestelako afekzio otorrinolaringologikoak dituzten senitartekoak.
- Egungo historia
  - Egungo entzumen-egoera, entzumenarekin lotutako zantzu eta sintomak.
  - Farmako ototoxikoak hartzeari buruzko datuak\*.
  - Zarataren eta substantzia ototoxikoen esposizioa lanetik kanpo\*.
  - Emakumea izanez gero, haurdun dagoen jakin beharko da\* eta, hala bada, haurdunaldiaren denbora.
  - Tabako-kontsumoa\*. Baiezkoa bada, kopurua adierazita.

Datuak biltzeko galdetegiak erabili ahal izango dira (ikusi I. eranskina).

#### – Azterketa medikoa

- Otoskopioa.
- Aire bidezko tonu-audiometria liminarra\*. Audiometria-kabinan egingo da (ikusi II. Eranskina).

### 4.1.2. Maiztasuna

#### – Hasierako osasun-azterketa

Lanean hasi ondoren edo zaratarekiko esposizioaren ondoriozko zeregin arriskutsu espezifikoko esleitu ondoren egingo da.

Entzumena gutxienez 12 orduz atsedenaldian eduki ondoren egingo da audiometria. Atsedenaldira hori zarataren esposiziopean egongo ez den aldia izango da, eta ezin izango da entzumen-babesa erabilita ordezkatu<sup>147</sup>.

Audiometria hori **erreferentziatzko audiometria** bihurtuko da prebentzio-programaren banakako eraginkortasuna aztertzeko, eta, hala, enpresan zarataren eraginpean egon aurretik langileak zuen entzumen-maila ezarriko du. Erreferentziatzko audiometria horren ordeza, berrespen-audiometria erabiliko da, atari-aldaketa esanguratsua gertatzen denean<sup>147</sup>.

#### – Aldizkako osasun-azterketak: Maiztasuna

- Esposizio-balio altuenak gainditzen dituzten lanpostuak, ekintza bat eragiten dutenak: gutxienez, hiru urtean behin.
- Esposizio-balio baxuenak gainditzen dituzten lanpostuak, ekintza bat eragiten dutenak: gutxienez, bost urtean behin.

Maiztasuna aldatu egin ahal izango da, eta osasun-azterketak edo proba osagarriak maizago egin ahal izango dira, prebentzio-zerbitzuko medikuak komenigarritzat jotzen duenean eta langile bakoitzaren esposizio- edo osasun-inguruabar zehatzek hala justifikatzen dutenean.

Ahal bada, lan-txandan programatu behar dira, zarata-kontrol eskasengatik edo entzumen-babesaren erabilera desegokiagatik aldi baterako entzumen-aldaketarik egon ote den hauteman ahal izateko. Emaizak berehala alderatu behar dira entzumen-maila basalekin<sup>146</sup>.

- **Osasun-arrazoiengatik luzaro lanik egin gabe egon ondorengo azterketa:**
  - Aldizkako audiometria: Lanik egin gabe egotea eragin zuen patologiaren balizko jatorri profesionalak aurkitzeko eta langileak babesteko ekintza egokia gomendatzeko xedearekin egiten da.

## 4.2. Osasunaren zaintza kolektiboa<sup>148</sup>

Zaintza kolektibo edo epidemiologikoaren helburua langile guztien osasun-egoeraren eta haien lan-baldintzen artean dauden harremanak aztertzea da.

Zaintza kolektiboaren helburua enpresan esku hartzea da, ez behaketa hutsa egitea. Horretarako, higiene-ebaluazioa osatzeko eta arrisku-egoerak kontrolatzeko eta prebenitzeko neurriei buruzko erabakiak hartzeko balioko duen informazioa ematen du, eta laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketan integratzen da.

Lortu nahi den helburuaren arabera, zaintza kolektiboaren edo zaintza epidemiologikoaren analisi-maila zeregin bakarra izan daiteke, edo antzeko arriskuak dituzten zereginen talde bat; kasu honetan, lanean zarataren esposiziopean dagoen kolektiboa aztertuko litzateke.

Adierazleak erabiltzeak erraztasunak jarriko ditu zaindutako lan-kolektiboen bilakaera epidemiologikoa aztertu eta interpretatzeko (esposizio desberdina duten taldeen arteko alderaketa, aldi desberdinen arteko alderaketa, aplikatutako prebentzio-neurrien eraginkortasuna, etab.).

Egiten den azterketaren maila edozein dela ere, beti hartu beharko da kontuan genero-ikuspegia, gizonen eta emakumeen artean eredu diferentzialak azter daitezen<sup>149</sup>.



Lortu nahi den helburuaren arabera, langile guztien osasun-egoera ezagutzea izan daiteke zaintza kolektiboaren analisiaren ardatza, baina langileen lan-baldintzak ere sar daitezke zaintza kolektiboan.

Zaintza kolektiboaren helburuak honako hauek dira:

- Biztanleria jakin batean zaratarekiko esposizioak osasunean dituen efektuen maiztasuna eta banaketa ezagutzea, hala nola honako hauena: entzumen-galera, zaratak haurdunaldian dituen efektuak edo esposizio horrek eragin ditzakeen efektu kardiobaskularrak.
- Biztanleria jakin batean zaratarekiko esposizioaren baldintzen maiztasuna eta banaketa ezagutzea.
- Zaratak osasunean dituen ondorioek eta zarataren baldintzek denboran zer bilakaera duten ezagutzea.
- Ustekabeen kasuak gehitu direla antzematea.
- Arriskuak murriztu edo gutxituko dituzten eta osasunean kalteak sortzea saihestuko duten prebentzio-jarduera kolektiboak proposatzeko informazioa ematea.
- Biztanleria horretan abian jarritako prebentzio-neurri kolektibo eta indibidualen eraginkortasuna ebaluatzea.

Azterketa epidemiologiko analitikoak egin daitezke edo horietan lagundu, honakoak ezagutzeko:

- Zer erlazio duten zaratarekiko esposizioak eta agente kimiko, fisiko eta farmakologikoen edo tabako-kontsumoak, entzumen-galera eragiteko.
- Zer erlazio duten zaratarekiko esposizioak eta esposizio horren ondoriozko efektu kardiobaskularrak.
- Zer erlazio duten zaratarekiko esposizioak eta haurdunaldiko efektuen edo jaio behar duen haurraren entzumenak.



## V. Jarduera-irizpideak

### 5.1. Audiometria indibiduala aztertzeko irizpideak<sup>147</sup>

Erreferentziako audiometriarekin alderatuta, aldizkako audiometriaren entzumen-atarian ikusten diren aldaketetan oinarritzen dira. Irizpideok baloratzeko, *NIOSH 15 dB Twice* metodologia ezartzen da.

Kalteak prebenitzeko, **ATARIAREN JAITSIERA NABARMENA (AJN)** zehazten da, baldin eta audiometriak aldaketa bat hautematen badu belarrietako edozeinetako entzumenaren atari-mailetan eta aldaketa hori 15 dB-koa edo handiagoa bada, 500 eta 6000 Hz arteko maiztasunetako edozeinetan. Kasu horretan, ahal den guztietan, **beste audiometria bat egingo da egun berean**, AJNk maiztasuna berberetan eta belarri berean jarraitzen duen aztertzeko.

Bigarren audiometriaren emaitzen balorazioa:

- Erantzuna baiezkoa bada, emaitza **berresteko audiometria bat egingo da 30 eguneko epean**, eta horren aurretik, entzumenak 12 orduko atsedena hartu beharko du. Atsedenaldira zarataren esposiziopean egongo ez den aldia izango da, eta ezin izango da entzumen-babeseko erabilerarekin ordezkatu.
- Erantzuna ezezkoa bada, AJN iraunkorrik ez dagoela ulertuko da, eta ez da beharrezkoa izango audiometria hori egitea, baina aztertu beharko da ea aldaketa horiek zarata-kontrol eskasengatik edo entzumen-babesaren erabilera desegokiagatik gertatu diren.

**Berresteko audiometria:**

- Berresteko audiometrian AJN mantentzen ez bada, pentsatzekoa izango da aldizkako audiometria egin zen egunean zarataren esposiziopean egoteak eragin zuela entzumen-gaitasunaren jaitsiera iragankorra.
- Berriz ere aztertu beharko da ea aldaketa horiek zarata-kontrol eskasengatik edo entzumen-babesaren erabilera desegokiagatik gertatu diren. Ebaluazio hori garrantzitsua da, aldaketaren kausa aztertuta aukera baitago entzumen-atariaren etengabeko beherakada hori saihesteko.
- Berresteko audiometrian AJNk bere horretan jarraitzen badu, esan nahi du entzumen-ataria etengabe ari dela jaisten. Kasu horretan, beharrezkoa da, halaber, hura agertzeko arrazoiak ebaluatzea, eta kaltea prebenitzeko eta entzumenaren babesteko neurriak proposatzea, zarataren ondorioz hipoakusiara ailegatu ez dadin.
- AJN bat baieztatzen bada, audiometria hori erreferentziako audiometria izango da aurrerantzean.



## 5.2. Langileen osasunaren zaintzatik ateratzen diren ondorioak komunikatzeko irizpideak

### • Prebentzio-gomendioen txostena

Osasunaren zaintzaren ondorioek, laneko arriskuen prebentzioaren ikuspegitik, enpresaburuak eta prebentzioaren arloan erantzukizuna duten pertsonak edo organoek prebentzio-arloko eginkizunak behar bezala garatu ahal izatea izan behar dute helburu. Beraz, lehenasunez, honela jakinarazten dira emaitzak: osasunaren zaintzan egindako aurkikuntzetatik eratorritako prebentzio-gomendioen bidez<sup>150</sup>.

### • Lanerako gaitasuna balioztatzeko irizpideak

Laneko medikuak, halaber, informazioa eman diezaieke enpresaburuari eta prebentzioaren arloan erantzukizuna duten pertsona edo organoei, gaitasun-txosten baten bidez, beharrezkoa denean<sup>150</sup>. Ildo horretan, osasun-azterketako aurkikuntzak taldeka sailkatzea proposatzen da, gaitasunari buruzko ondorioak igortzeko prozesua errazte aldera.

|  |
|--|
| I. TALDEA  |
| <b>OSASUN-ZAINTZAREN EMAITZA:</b><br>– Entzumen-galerarik ez.  |
| <b>GAITASUNA:</b> GAI  |
| <b>JARDUKETA:</b><br>– Langileak osasun-arrazoien ondoriozko murrizketarik gabe bete ahal izango du bere ohiko eginkizuna. |

**2. TALDEA****OSASUN-ZAINTZAREN EMAITZA:**

Baldintza hauetakoren bat betetzen da:

- Atalasearen jaitsiera nabarmena (AJN)
- Entzumen-galeraren presentzia\*
- Zaratarekiko esposizioarekin interakzioa izan dezaketen botikak hartzea\*
- Bibrazioen ziozko hatz zuria\*
- Entzumen-galerarako aukerak areagotu ditzaketen gaixotasun edo nahasduren aurrekariak
- Haurdunaldia\*

**GAITASUNA:** GAI, zaratarekiko esposizioarekiko bereziki sentikorra den langilea.

**JARDUKETA:**

- Zarataren esposizio-mailak murriztu behar dira neurri teknikoan, antolamendu-neurrien eta abarren bidez, eta, bitarteko horiekin nahikoa murriztea lortzen ez bada, entzumen-babes indibidual egokiak erabili behar dira.
- Aurreko neurriak posible ez direnean edo horiekin esposizio-mailak murriztea lortzen ez denean edo entzunaldi-kontrolatan entzumena okertu dela ezartzen denean (kontrol horiek egokitzat jotzen den maiztasunarekin egingo dira), lanpostua aldatzea gomendatu ahal izango da.
- Osasun-azterketak edo proba osagarriak oro har ezarritakoa baino maiztasun handiagoarekin egin ahal izango dira, langile bakoitzaren esposizio- edo osasun-egoera zehatzen arabera.

**3. TALDEA****OSASUN-ZAINTZAREN EMAITZA:**

Baldintza hauetakoren bat betetzen da:

- Defizit hori bateraezina da entzumen-eskakizun oso handiko lanekin.
- Entzumena galtzearen ondorioz, arrisku larrian jar daiteke langilearen edo hirugarrenen osotasun fisikoa edo bizitza.

**GAITASUNA:** EZ GAI LANPOSTURAKO

**JARDUKETA:**

- Lanpostuz aldatzea.
- Enpresan lanpostu bateragarriak ez badago, ezintasun iraunkorreko izapidera biderratu ahal izango da, modu justifikatuan.

**– Langilearentzako prebentzio-gomendioei buruzko txostena**

- Osasunaren zaintzaz arduratzen diren osasun-langileek zehatz azalduko diote langileari zaratarekiko zer esposizio duen, zer prebentzio-neurri dituen gomendagarri eta zeinen garrantzitsua den neurri horiek egokiro betetzea.
- Zaratarekin\* interakzioa eragin dezaketen farmakoak hartzen badira, babes-neurriak erabiltzeko eta behar bezala erabiltzeko gomendioa indartuko da.



- Langileak tabakoa erretzen duela egiaztatuz gero, tabakismoaren kontrako aholkuak emango zaizkio, eta ez erretzeko gomendatuko zaio.

### **5.3. Nola jokatu langilea aldi berean zarataren eta agente kimikoen esposiziopean badago eta horrek entzumena galaraz badiezaioke\***

Arrisku kimikoak ebaluatu ondoren, hala behar izanez gero, agente kimikoek eragindako arriskuak prebenitzeko neurriei buruzko gomendioak gehituko dira, honela laburbil daitezkeenak:

- Arriskua ahalik eta gehien murrizteko edo ezabatzekeo neurriak. Horretarako, agente kimikoaren edo kimikoen erabilera saihestuko, eta, beraz, beste batzuekin edo arriskutsuak ez diren edo arrisku gutxiago duten prozesu kimikoekin ordezkatuko da.
- Jardueraren izaerak ez badu biderik ematen arriskua ordezkapenaren bidez kentzeko, arrisku hori ahalik eta gehien murriztuko da, arriskuen ebaluazioarekin koherenteak diren babes- eta prebentzio-neurriak aplikatuta.

### **5.4. Nola jokatu, haurdun dagoen emakume bat zarataren esposiziopean badago<sup>151</sup>**

Prebentzio-zerbitzuen osasun-arloari ez dagokio haurdunaldiaren jarraipena egitea, baina beharrezkoa da jarraipena egiten dutenekin lankidetzan aritzea. Helburua da une oro bermatzea lan-baldintzak langilearen egoera espezifikoki egokitzen zaizkiola. Izan ere, aldi horretan, lanpostua egokitu beharra dakarten egoerak ager daitezke.

Amatasunaren babesari buruzko informazio- eta prestakuntza-eskubideak direla eta, enpresaburuak alde aurretik jakinarazi behar die langileei zarataren esposiziopean daudela eta zaratat zer ondorio izan ditzakeen haurdunaldian. Emakumezko langileen kasuan, informazio hori gogorarazi eta eguneratu egin beharko litzateke aldizkako zaintza medikoan.

- Hainbat unetan proposatu beharko litzaioke langileari prebentzio-zerbitzura mediku-bisita egin dezala:
  - haurdunaldiaren berri ematen den unean
  - langileak haurdunaldian zehar hala eskatzen duenean
  - arreta ematen dion medikuaren bisitetan sintomak edo alterazioak agertzean direnean, umekiaren hazkundearen atzerapenari bereziki erreparatuta.
- Langile batek haurdunaldiaren berri ematen duenean, osasun-zaintzaz arduratzen diren osasun-langileek enpresaburuari eta prebentzioaren arloan erantzukizuna duten pertsona edo organoei azalduko diete arriskua desagerrarazteko edo murrizteko aurreikusitako neurriak aztertu behar direla prebentzio-arloko eginkizunak behar bezala bete ahal izateko.
- Balorazioa egin ondoren arriskua ezin bada behar bezala desagerrarazi edo murriztu, lanpostua edo lan-ordutegia egokitzea proposatuko da.
- Lan-baldintzak edo lan-denbora egokitzea ezinezkoa bada edo, aldaketak egin arren arriskuak bere horretan jarraitzen badu, lanpostuz aldatzea gomendatuko da; hots, enpresa berean arriskurik ez dagoen beste lanpostu batera joateko, harik eta aldaketa eragin zuen arrazoia desagertzen den arte. Horren arabera, haren talde edo kategoria baliokideari ez dagokion lanpostu batera destinatu ahal izango da.
- Lanpostu-aldaketa hori teknikoki zein objektiboki ezin bada egin, edo justifikatutako arrazoiengatik ezin bada gauzatu, ukitutako emakume langileari lan-kontratua eteten zaiola adierazi ahal izango zaio, Langileen Estatutuaren 45.1.d) artikulua jasotako haurdunaldi-arriskuaren ondorioz; etete hori, zehazki, emakume langile horren segurtasuna eta osasuna babesteko behar den beste denborarako izango da, eta langile horrek aurreko lanpostuan edo bere egoerarekin bat datorren beste lanpostu batean lan egiteko ezintasunak iraun bitartean. Horretarako, garrantzitsua da Gizarte Segurantzak horri buruz ezartzen dituen baldintzak eta epeak kontuan hartzea<sup>152</sup>.

## 5.5. Nola jokatu, laneko medikuak uste badu zaratak eragindako hipoakusia-kasu batean aurrean dagoela 38

- Audiometria bat normaltzat joko da entzumen-ataria ez denean 25 dB baino handiagoa ezein maiztasunetan. Handiagoa bada eta zarataren ondorioz hipoakusiaren ezaugarriak baditu (ikus 2.1.6. atala), baloratuko da ea alterazioa zarata-maila handien esposizioaren ondorio den, arrisku-



ebaluazioen datuetatik eta historia kliniko eta laboraletik abiatuta. Medikuek profesionalak gaixotasun profesionala egon daitekeelako susmoa badu, horren berri eman beharko dio autonomia-erkidego bakoitzeko organo eskudunari, azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretuak (Gizarte Segurantzaren sisteman gaixotasun profesionalen koadroa onartu, eta horiek jakinarazteko eta erregistratzeko irizpideak ezartzen dituenak) 5. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

- Enpresari jakinaraziko dio gaixotasun profesionalaren susmoa piztu duen kasu bat izapidetu dela, eta langilea Gizarte Segurantzaren erakunde laguntzailera bidali behar dela jakinaraziko dio, azken horrek diagnostikoa berrets dezan.
- Enpresan egindako izapideei buruzko informazioa emango dio langileari.

## 5.6. Dokumentazioa

Langile bat enpresatik kanporatzen denean, enpresarekin kontratu-harremana uzteagatik edo erretiroa hartzeagatik, bere historia kliniko-laboralari dagokion gainerako informazioarekin batera, ordura arteko bere entzumen-egoerari buruz dagoen informazioa eman behar zaio.

## Bibliografía

- <sup>1</sup> Uña MA, García E, Betegón A. Protocolo de vigilancia de la salud específica: Ruido. Madril: Osasun eta Kontsumo Ministerioa; 2001. [azken kontsultaren data: 2018-01-11]. Helbide honetan eskura daiteke: <http://www.msc.es/ciudadanos/saludAmbLaboral/docs/ruido.pdf>
- <sup>2</sup> Guía Técnica para la evaluación y prevención de los riesgos relacionados con la exposición de los trabajadores al ruido. Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala. Madril; 2006 [azken kontsultaren data: 2017-12-22]. Helbide honetan eskura daiteke: [http://www.insht.es/InshtWeb/Contenidos/Normativa/GuiasTecnicas/Ficheros/gu%C3%ADa\\_t%C3%A9cnica\\_ruido.pdf](http://www.insht.es/InshtWeb/Contenidos/Normativa/GuiasTecnicas/Ficheros/gu%C3%ADa_t%C3%A9cnica_ruido.pdf)
- <sup>3</sup> Grupo de trabajo para la actualización del Manual de Elaboración de GPC. Elaboración de Guías de Práctica Clínica en el Sistema Nacional de Salud. Actualización del Manual Metodológico [Internet]. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa; Zaragoza: Osasunaren Zientzien Aragoiko Institutua (IACS); 2016 [azken kontsultaren data: 2017-12-22]. Helbide honetan eskura daiteke: [http://portal.guiasalud.es/emanuales/elaboracion\\_2/Capitulos/completo.pdf](http://portal.guiasalud.es/emanuales/elaboracion_2/Capitulos/completo.pdf)
- <sup>4</sup> NTP (National Toxicology Program). Handbook for Conducting a Literature-Based Health Assessment Using OHAT Approach for Systematic Review and Evidence Integration. Office of Health Assessment and Translation (OHAT). Division of the National Toxicology Program National. Institute of Environmental Health Sciences; 2015 [azken kontsultaren data: 2017-12-22]. Helbide honetan eskura daiteke: [https://ntp.niehs.nih.gov/ntp/ohat/pubs/handbookjan2015\\_508.pdf](https://ntp.niehs.nih.gov/ntp/ohat/pubs/handbookjan2015_508.pdf)
- <sup>5</sup> Rosell JA. Deterioro auditivo inducido por el ruido. Seminario médico. 1996;48 (1): 89-116.
- <sup>6</sup> Salatoff RT, Salatoff J. Occupational Hearing Loss. Boca Raton (FL): 2006. CRC-Taylor and Francis.
- <sup>7</sup> Clemente C. Enfermedades profesionales del oído. Medicina y Seguridad del Trabajo. 1991; 152:13-24 or.
- <sup>8</sup> Gil-Loyzaaga, Poch J. Fisiología del sistema auditivo periférico. Hemen: Suárez Nieto C, Gil-Carcedo LM, et al., eds. 2. tomoa. Otología. Tratado de otorrinolaringología y cirugía de cabeza y cuello. Buenos Aires; Madril: 2008. Médica Panamericana. 953-968. orr.



- 9 Gaynés E, Goñi A. Hipoacusia laboral por exposición a ruido: Evaluación clínica y diagnóstico. NTP 287. Madrid: Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala (INSHT); 1992. [azken kontsultaren data: 2017-12-22]. Helbide honetan eskura daiteke: [http://www.insht.es/InshtWeb/Contenidos/ Documentacion/FichasTecnicas/NTP/Ficheros/201a300/ntp\\_287.pdf](http://www.insht.es/InshtWeb/Contenidos/ Documentacion/FichasTecnicas/NTP/Ficheros/201a300/ntp_287.pdf)
- 10 Gil-Carcedo LM, Vallejo LA, Gil-Carcedo E, Acuña. Daño coclear por sobreestimulación acústica. Traumatismo acústico agudo y crónico. Enfermedades producidas por el ruido. Hemen: Suárez Nieto C, Gil-Carcedo LM, et al., eds. 2. tomoa. Otología. Tratado de otorrinolaringología y cirugía de cabeza y cuello. Buenos Aires; Madrid: 2008. Médica Panamericana. 1603-1624. orr.
- 11 Kirchner B, Evenson E, Dobie RA, Rabinowitz P, Crawford J, Kopke R et al. ACOEM Task Force on Occupational Hearing Loss. ACOEM Guidance Statement. Occupational Noise-Induced Hearing Loss. JOEM. 2012;54(1):106-108.
- 12 Campo P, Venet T, Thomas A, Cour C, Brochard C, Cosnier F. Neuropharmacological and cochleotoxic effects of styrene. Consequences on noise exposures. Neurotoxicol Teratol.2014;44:113-120.
- 13 Chen GD, Henderson D. Cochlear injuries induced by the combined exposure to noise and styrene. Hearing Research.2009;254:25-33.
- 14 Fechter LD. Effects of acute styrene and simultaneous noise exposure on auditory function in the guinea pig. Neurotoxicol Teratol.1993;15(3):151-155.
- 15 Morata TC, Sliwinska-Kowalska M, Johnson AC, Starck J, Pawlas K, Zamyslowska-Szmytko E et al. A multicenter study on the audiometric findings of styrene-exposed workers. Int J Au- diol.2011;50:652-660.
- 16 Lataye R, et al. Combined effects of noise and styrene exposure on hearing function in the rat. Hear Res.2000;139(1-2):86-96.
- 17 Lataye, R, et al. Combined effects of noise and styrene on hearing: comparison between active and sedentary rats. Noise Health.2005;7(27):49-64.
- 18 Makitie AA, et al. The ototoxic interaction of styrene and noise. Hear Res.2003;179(1-2):9- 20.
- 19 Sliwinska-Kowalska M, et al. [Hearing impairment in the plastics industry workers exposed to styrene and noise]. Med Pr.2001;52(5),297-303.
- 20 Sliwinska-Kowalska M, et al. Ototoxic effects of occupational exposure to styrene and co-exposure to styrene and noise. J Occup Environ Med.2003;45(1):15-24.



- 21 Sliwinska-Kowalska M, et al. Exacerbation of noise-induced hearing loss by co-exposure to workplace chemicals. *Environ Toxicol Pharmacol.*2005;19:547-553.
- 22 Brandt-Lassen R, Lund SP, et al. Rats exposed to Toluene and Noise may develop Loss of Auditory Sensitivity due to Synergistic Interaction. *Noise Health.*2000;3(9):33-44.
- 23 Campo P, et al. No interaction between noise and toluene on cochlea in the guinea pig. *Akta Akustikoa.*1993;1:35-42.
- 24 Chang SJ, Chen CJ, et al. Hearing loss in workers exposed to toluene and noise. *Environ Health Perspect.*2006;114(8):1283-6.
- 25 Davis RR, et al. Susceptibility to the ototoxic properties of toluene is species specific. *Hear Res.*2002;166(1-2):24-32.
- 26 Johnson AC, et al. Effect of interaction between noise and toluene on auditory function in the rat. *Acta Otolaryngol.*1988;105(1-2):56-63.
- 27 Johnson AC, et al. Sequence of exposure to noise and toluene can determine loss of auditory sensitivity in the rat. *Acta Otolaryngol.*1990;109(1-2):34-40.
- 28 Lataye R, et al. Combined effects of a simultaneous exposure to noise and toluene on hearing function. *Neurotoxicol Teratol.*1997;19(5):373-82.
- 29 Lund SP, et al. Hazards to hearing from combined exposure to toluene and noise in rats. *Int J Occup Med Environ Health.*2008;21(1):47-57.
- 30 Morata TC, et al. Effects of occupational exposure to organic solvents and noise on hearing. *Scand J Work Environ Health.*1993;19(4):245-54.
- 31 Schaper M, et al. Occupational toluene exposure and auditory function: results from a follow-up study. *Ann Occup Hyg.*2003;47(6):493-502.
- 32 Schaper M, Seeber A, et al. The effects of toluene plus noise on hearing thresholds: an evaluation based on repeated measurements in the German printing industry. *Int J Occup Med Environ Health.*2008;21(3):191-200.
- 33 Chang, SJ et al. Hearing loss in workers exposed to carbon disulfide and noise. *Environ Health Perspect.* 2003;111(13):1620-1624.
- 34 Muijser H et al. Effects of exposure to trichloroethylene and noise on hearing in rats. *Noise Health.* 2000;2(6):57-66
- 35 Cappaert NLM, Klis SFL, Muijser H, Kulig BM, Smoorenburg GF. Simultaneous exposure to ethyl benzene and noise: synergistic effects on outer hair cells. *Hearing Research.*2001;162(1-2):67-79.



- 36 Chen GD, et al. Potentiation of octave-band noise induced auditory impairment by carbon monoxide. *Hear Res.*1999;132(1-2):149-59.
- 37 Chen GD, et al. Intermittent noise-induced hearing loss and the influence of carbon monoxide. *Hear Res.*1999;138(1-2):181-91.
- 38 Chen GD, et al. Succinate dehydrogenase (SDH) activity in hair cells: a correlate for permanent threshold elevations. *Hear Res.*2000;145(1-2):91-100.
- 39 Chen GD, et al. NMDA receptor blockage protects against permanent noise-induced hearing loss but not its potentiation by carbon monoxide. *Hear Res.*2001;154(1-2):108-15.
- 40 Fechter LD, et al. (1988) Potentiation of noise induced threshold shifts and hair cell loss by carbon monoxide. *Hear Res.*1988;34(1):39-47.
- 41 Fechter LD. A mechanistic basis for interactions between noise and chemical exposure. *Arch Complex Environ Studies.*1989;1(1):23-28.
- 42 Fechter LD, et al. Characterising conditions that favour potentiation of noise induced hearing loss by chemical asphyxiants. *Noise Health.*2000;3(9):11-21.
- 43 Fechter LD, et al. Predicting exposure conditions that facilitate the potentiation of noise-induced hearing loss by carbon monoxide. *Toxicol Sci.*2000;58(2):315-23.
- 44 Pouyatos B, et al. Lipoic acid and 6-formylpterin reduce potentiation of noise-induced hearing loss by carbon monoxide: Preliminary investigation. *J Rehabil Res Dev.*2008;45(7),1053- 1064.
- 45 Rao DB, et al. Increased noise severity limits potentiation of noise induced hearing loss by carbon monoxide. *Hear Res.*2000;150(1-2):206-14.
- 46 Rao D, et al. Protective effects of phenyl-N-tert-butyl nitron on the potentiation of noise-induced hearing loss by carbon monoxide. *Toxicol Appl Pharmacol.*2000;167(2):125-31.
- 47 Young JS, et al. Carbon monoxide exposure potentiates high-frequency auditory threshold shifts induced by noise. *Hear Res.*1987;26(1):37-43.
- 48 Fechter LD, Chen GD, Johnson DL. Potentiation of noise induced hearing loss by low concentrations of hydrogen cyanide in rats. *Toxicol Sci.*2002 Mar;66(1):1-3.
- 49 Fechter LD, et al. Acrylonitrile produces transient cochlear function loss and potentiates permanent noise induced hearing loss. *Toxicol Sci.*2003;75(1):117-23.

- <sup>50</sup> Fechter LD, et al. Acrylonitrile potentiates noise-induced hearing loss in rat. *J Assoc Res Otolaryngol*.2004;5(1):90-8.
- <sup>51</sup> Pouyatos B, et al. Acrylonitrile potentiates hearing loss and cochlear damage induced by moderate noise exposure in rats. *Toxicol Appl Pharmacol*.2005;204(1):46-56.
- <sup>52</sup> Pouyatos, B, et al. Oxidative stress pathways in the potentiation of noise-induced hearing loss by acrylonitrile. *Hear Res*.2007;24(1-2),1-74.
- <sup>53</sup> Muthaiah VPK, Chen GD, Ding D, Salvi R, Roth JA. Effect of manganese and manganese plus noise on auditory function and cochlear structures. *Neurotoxicology*.2016;55:65-73.
- <sup>54</sup> Hwang YH, Chiang HY, Yen-Jean MC, Wang JD. The association between low levels of lead in blood and occupational noise-induced hearing loss in steel workers. *Sci Total Environ*.2009;408:43-49.
- <sup>55</sup> Wu TN, et al. Effects of lead and noise exposures on hearing ability. *Arch Environ Health*.2000;55(2):109-14.
- <sup>56</sup> Attarchi MS, Labbafinejad Y, Mohammadi S. Contemporary exposure to cigarette smoke and noise of automobile manufacturing company workers. *J Public Health*.2010;18:245-249.
- <sup>57</sup> Mehrparvar AH, Mollasadeghi A, Hashemi SH, Sakhvidi MJ, Mostaghaci M, Davari MH. Simultaneous effects of noise exposure and smoking on OAEs. *Noise Health*.2015;17:233-236.
- <sup>58</sup> Mizoue T, Miyamoto T, Shimizu T. Combined effect of smoking and occupational exposure to noise on hearing loss in steel factory workers. *Occup Environ Med*.2003;60:56-59.
- <sup>59</sup> Mohammadi S, Mazhari MM, Mehrparvar AH, Attarchi MS. Cigarette smoking and occupational noise-induced hearing loss. *Eur. J. Public Health*.2009;20(4):452-455.
- <sup>60</sup> Mohammadi S, Mazhari MM, Mehrparvar AH, Attarchi MS. Effect of simultaneous exposure to occupational noise and cigarette smoke on binaural hearing impairment. *Noise Health*.2010;12:187-190.
- <sup>61</sup> Nomura K, Mutsuhiro N, Yano E. Hearing loss associated with smoking and occupational noise exposure in a Japanese metal working company. *Int Arch Occup Environ Health*.2005;78:178-184.
- <sup>62</sup> Palmer KT, Griffin MJ, Syddall HE, Coggon D. Cigarette smoking, occupational exposure to noise, and self-reported hearing difficulties. *Occup Environ Med*.2004;61:340-344.



